

## **Udalerriko hiri-trafikoko ordenantza aldatu baino lehen, aurretiko kontsulta publikoa egiteko iragarkia**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat berrikuntza ekarri ditu legeak eta erregelamenduak idazteko orduan; besteak beste, jaso egin beharko da zer iritzi duten horri buruz etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkarrirenek.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 133. artikuluan, honako hau xedatzen du:

*“1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkarrirenek puntu huaeい buruz:*

- a) *Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) *Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
- c) *Arauaren helburuak.*
- d) *Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzairen eta ez-erregulatzairen.*

Bergarako Udalaren asmoa da udalerriko hiri-trafikoko ordenantza aldatzea.

39/2015 Legean zehaztutako prozedura betetzeko asmoz, udalak erabaki du udalerriko hiri-trafikoko ordenantzaren aldaketa onartu baino lehen, horri buruzko aurretiko kontsulta publiko bat egitea.

Horrenbestez, egoki irizten duten herritarrek, erakundeek edo elkarteen parte hartu ahal izango dute, beraien ekarpenak aurkeztuz **2019ko abenduaren 2ra arte**, bi bide hauetatik edozein erabilita:

- Posta elektronikoa erabiliz, postontzi honetara bidalita: [idazkaritza@bergara.eus](mailto:idazkaritza@bergara.eus)
- Iradokizunak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuz (San Martin Agirre plaza 1, B@Zean).

### **EKIMEN HONEN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK**

Bergarako Udalak trafikoko arau-hauste arinen zenbatekoa zehazteko eskumena du eta, horrenbestez, udalerriko hiri-trafikoko ordenantzaren bidez –Udalbatzak 2001eko uztailaren 23an onartutakoa eta GAOn 2001/10/10ean argitaratutakoa–, 20 euroko zenbatekoa ezarri zien horrelako arau-hausteei (64. artikulua).

Hemezortzi urte iragan ondoren, Udaltzaingoa antzematen ari da horrelako zigor-motek galdu egin dutela eduki beharko luketen disuasio-eragina; izan ere, zigorrak aurrez ordaindiz gero % 50eko hobaria dutenez, azkenean zenbatekoa 10 eurotan gelditzen da.

Horrexegatik, gai hau sakon aztertu ondoren, Udaltzaingoak uste du arau-hauste arinen zenbatekoa gaurkotu egin behar dela. Urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak –Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak– jasotzen duenez, arau-hauste arinen zigorrak 100 euro artekoak izan daitezke.

### **ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA**

## **ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HELBURUAK**

Ordenantza honetako 64. artikuluan jasotako arau-hauste arinen zenbatekoa aldatzeko helburua, besterik gabe, honako hau da: arau-hauste arinen zenbatekoa gaurkotu egin behar da ordenantzaren aurkako arau-hauste horiek sistematikoki errepikatu ez daitezen, askotan disuasio-eragina galdua dutelako, baina betiere arau-hauste arinen eta larrien arteko proporcionaltasuna mantenduz.

## **EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK EDO EZ-ERREGULATZAILEAK**

Ez da aurreikusi bestelako aukera erregulatzailerik.

**Argitaratze-data: 2019/11/14**

## **Anuncio para llevar a cabo la consulta pública previa a la modificación de la ordenanza reguladora de las infracciones de tráfico en el municipio**

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas— ha traído novedades a la hora de redactar leyes y reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados.

La Ley 39/2015 —de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas—, en su artículo 133, dispone lo siguiente:

*“1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) Los objetivos de la norma.*
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.”*

La intención del Ayuntamiento de Bergara es modificar la ordenanza reguladora de las infracciones de tráfico en el municipio.

Con el objetivo de cumplir el procedimiento dispuesto en la Ley 39/2015, el ayuntamiento ha decidido llevar a cabo una consulta pública previa antes de la aprobación de la modificación de la ordenanza reguladora de las infracciones de tráfico en el municipio.

Por tanto, la ciudadanía, instituciones y asociaciones que lo estimen oportuno podrán participar presentando sus aportaciones **hasta el 2 de diciembre de 2019**, por cualquiera de estas dos vías:

- Correo electrónico al buzón: [idazkaritza@bergara.eus](mailto:idazkaritza@bergara.eus)
- Presentando sus sugerencias en el Registro General del Ayuntamiento (plaza San Martín Agirre 1, en el B@Z).

### **PROBLEMAS QUE SE QUIEREN SOLVENTAR MEDIANTE ESTA INICIATIVA**

El Ayuntamiento de Bergara, competente para establecer la cuantía de las infracciones leves de tráfico, mediante ordenanza reguladora de las infracciones en materia de tráfico en el municipio, aprobada por el Pleno Municipal el 23 de julio de 2001 y publicada en el BOG de fecha 10/10/2001, impuso a estas la cuantía de 20 euros (artículo 64).

Transcurridos dieciocho años, la Policía Municipal viene observando que la imposición de este tipo de sanciones ha perdido en muchas ocasiones el efecto disuasorio que se le supone, ya que el pago por adelantado de las mismas tiene una bonificación del 50% siendo el importe final de 10 euros.

Es por ello que tras analizar en profundidad dicha cuestión, la Policía Municipal ve la necesidad de actualizar la cuantía de las infracciones leves. El artículo 80 del Real Decreto Legislativo 6/2015 de 30 de octubre por el que se aprueba el texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial recoge que las sanciones por infracciones leves podrán ser de hasta 100 euros.

## **NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA**

### **OBJETIVOS DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA**

El objetivo de modificar la cuantía de las infracciones leves recogidas en el artículo 64 de esta ordenanza no es otro que actualizar el importe de las mismas para evitar que se repitan de manera sistemática infracciones a la ordenanza motivadas muchas de ellas por la pérdida del efecto disuasorio, pero siempre guardando la proporcionalidad entre infracciones leves y graves.

### **OTRAS OPCIONES REGULADORAS Y NO REGULADORAS QUE PUEDAN EXISTIR**

No se prevé ninguna otra opción reguladora.

**Fecha de publicación:2019/11/14**